



HAL
open science

Leheneste estrategiak perpausaren ezker ertza finkatzeko orduan euskaraz

Ricardo Etxepare

► **To cite this version:**

Ricardo Etxepare. Leheneste estrategiak perpausaren ezker ertza finkatzeko orduan euskaraz. Lapurdum, 2023, xxiv (1), pp.103-119. hal-04380308

HAL Id: hal-04380308

<https://hal.science/hal-04380308>

Submitted on 8 Jan 2024

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Public Domain

Leheneste estrategiak perpausaren ezker ertza finkatzeko orduan euskaraz¹

Ricardo Etxepare (CNRS, IKER 5478)

1. Aditz jokatuak eta perpausaren ezker ertza

Euskarazko adizki jokatuak erakusten duten ezaugarri multzoaren baitan, ohargarria da adizki sintetikoek eta laguntzaileek erakusten duten hein bateko asimetria. Jakina denez, euskarazko adizki jokatuak ez dezakete perpaus bat hasi:

(1) *Dator

(1)-ek erakutsian uzten duen debekuak erremedio ezaguna du euskaraz: adizki sintetikoen kasuan, *ba-* aurrizkiaren, *ez* ezezko partikularen edo galdegaiaren eransketak ondorio salbagarriak ditu (2).

(2) a. Ba-dator
b. Ez dator
d Nor dator ?

Eztabaida gaia izan da eta da euskaraz zein den laguntzailearen oinarritzko posizioa aditz sintagmarekiko. Aurreko hainbat lanetan (Etxepare eta Uribe-Etxebarria, 2009; Etxepare 2016; Etxepare eta Haddican, 2017), laguntzailearen oinarritzko kokapena euskaraz Aspektu Sintagmaren aitzinean dela proposatu dut, lehenago Haddican-ek (2001, 2004, 2007, 2008) eta oraintsuago Haddicanek eta Elordietak (2018) argudiatu bezala. Kontua da, laguntzaileen lehen batze-posizioa ezkerrean gauzatzen bada fonologikoki, adizki sintetikoen eta laguntzaileen artean diferentzia jakingarri bat bistaratzen dela adizkia lehen posiziotik begiratzeko haizu diren estrategiak aztertzen baditugu. Adizki sintetikoen kasuan haizu diren aukera guziak ez dira berdin haizu adizki jokatua laguntzailea denean. (2d)-ren parekorik ez da, mendebalde eta erdialdeko hizkeretan, laguntzaileentzat:

(3) *Nor da etorri ?

(3) bezalako hurrenkerak guziz arruntak dira, ezaguna denez, ekialdeko hizkeretan (ikus Lafitte, 1944 ; Duguine eta Irurtzun, 2008, 2010). Mendebalde eta erdialdean ere posible ziren ez hain aspaldiarate. Etxeparek (2016) XVIII. mendeko ondoko etsenplua ekartzen du, beste batzuen artean, Barrutiaren *Acto para la Nochebuena*-tik hartua :

(4) Zerureanik dakart enbajadea/ **zeu zarala izango** jaunaren amea (Barrutia, Acto: 41-42, Lakarra eta Knorr, 1982)

Ekialdeko euskalkien pareko portaera erakusten dute bestalde mendebalde eta erdialdeko euskalkiek *izan* eta *edun* adizkiak laguntzaile ez baina predikatu nagusi gisa erabiltzen direnean (5). Afera ez da beraz adizkia *izan/edun* sailekoa den edo ez.

¹ Jon Cazenaveri, azken urteotan euskal ikasketen inguruan elkarrekin eramandako lan ugarien ezagupen eta eskerronez

- (5) a. Nor da hori ?
b. Zer du Jonek ?

Izan eta edun perpausaren predikatu nagusia diren kasuez aparte, badira ere predikatua aditz mailakoa ez denean aditz jokatuak laguntzaileekin konparatuta onartzen dituen ez-ohiko hurrenkerak. Asumituaz esate baterako, *nahikoa izan* esapidean *nahikoa* Determinatzaile Sintagma dela predikatu nagusia (6a), ekialdeko hurrenkera posible bilakatzen da euskalki guzietan (6b):

- (6) a. Osasuna eta maitasun pixkat nahikoak ditut zoriontsu izateko
b. Zer duzu nahikoa zuk zoriontsu izateko?

(6) bezalako kasuak esanguratsuak dira Baker-ek (2003; 2008) proposatzen duen bezala, izenkiek (eta haietatik eratorritako kategoria funtzional aberatsagoek) ezin badezakete beregainki predikazioa bideratu. Baker-en ustetan, izenki predikatuek kopula baten beharrean dira predikazioa ahalbidetu behar badute. Euskaraz kopula hori *edun* adizki baten bitartez emana da (6a,b)n. Baker-en sisteman, kopula predikazioa posible egiten duen aditz mailako kategoria bat denez, asumitu behar dugu (6a,b)ko aditz formek badutela beren tasun multzoan laguntzaile hutsek ez daukaten aditz tasun bat.

Gauzak honela ikusi behar badira, ekialdeko hurrenkera posible egiten duen baitezpadako elementua aditz kategoriako tasun bat izatea da. Forma jokatuak aditz tasun bat biltzen badu, galdegaia lehen posizioan agertzetik begira dezake:

- (7) Galdegaia Jok_{+aditza/*-aditza}

Zergatik da hau horrela?

2. « Perpaus ertza » nola ulertu behar dugun

Perpausaren ezker ertza adizki jokatu ez den zerbaiten bitartez hesitzeko beharra ez dator laguntzailearen otezko eskasia batetik, fonologikoa edo beste (*pace* Ortiz de Urbina, 1993, 1994). Berez, euskarak adizki jokatuaren lehen posizioari buruz erakutsi iduri duen debekua ez da adizki jokatuaren gainean zuzenean ezartzen den bat. Partikula ebidentzialek (bisilabikoak eta azentudunak direnak, hainbat hizkeratan bederen), ez dezakete perpausaren ezker ertza hesitzen lagundu (8):

- (8) a. *Omen dator
b. *Ote doa?

Delako hesitzea beraz perpaus egituran haratago gertatzen den zerbait da. Laguntzailea ezker ertzetik begiratzeko euskarak baliatzen dituen bitartekoak partikula ebidentzialen aitzinean agertzen dira. Hurrenkerak egitura sintaktikoa islatzen badu, partikula hauek gorago batzen dira perpaus egituran partikula ebidentzialak eta adizki jokatu baino:

- (9) a. Ba-omen dator
b. Ez omen dator

Hipotesi hori ondoko datuak berresten du: *omen* eta *ote* partikulek, euskaraz, zutik diraute adizki jokatua buru duen Sintagmaren elipsia behartzen dugunean:

- (10) A: Nork dauka dirua?
B: Mikelek omen/Mikelek ote?

(10) bezalako galde-erantzunen garrantzia, edo zehazkiago esanda, (10b)-rena, ezbaian jarri dute besteak beste Elordietak (1997: 188), Lizardik (bidean) eta Monfortek (2021). Haien ustez, (10b) bezalako perpaus bat *omen*-en erabilera parentetikoaren adibidetzat har daiteke. Zenbait hizkeratan, *omen* perpauslagun gisa eman daiteke perpausaren ezkerreko zein eskuineko ertzean, eten prosodiko batez lagundurik:

- (11) (Omen), jende ainitz zabilen inguruan, (omen)

Ohar gaitezen hala ere, aterabide hori *omen*-entzat balio duela bakarrik. *Ote*-k ez du erabilera parentetikorik euskaraz:

- (12) a. *Ote, etorri da?
b. *Nork erosi du etxe hori, ote?

Ote isiltzen ez duen elipsiak ezin du honenbestez *ote* parentetiko baten emaitza izan:

- (13) A: Norbaitek etxe berria erosi du
B: Nork ote?

Horren kontra mintzatzeko dela iduri luke ondokoak: *ote* eta *omen* adizki jokatuak aparte eta perpausaren bukaeran agertzen den kasuak ugariak dira ekialdeko hizkeretan. (14a,b) Eñaut Etxamendi eta Mixel Thikoiperen lanetatik hartutako etsenpluak dira, Basyque datubasetik erauziak:

- (14) a. Ta oixtien erten nitianak “Lana ta hiria gure ganat eta ez gu heien ganat » etxu batree Enbatak pentsatia, bana Joanes XXIII garrenak hori bezalako hitzak erran eta manatu txi omen
b. Gehiago denbora biziko niza ote?

Baina hauek ez dira ustezko *ote* edo *omen* parentetiko baten erakusgarri. Gauzak gertuagotik begiratuta, *omen* eta *ote* distribuzio laxoagoa dute perpaus egituran ekialdeko hizkeretan mendebalde eta erdikoetan baino (Etxepare, 2010; Etxepare eta Uria, 2016). Orokorpen zuzena da ekialdeko hizkeretan, *omen* eta *ote* laguntzailearen atzetik ager daitezkeela, ez baitezpada perpaus bukaeran (Basyque datubasetik hartutako etsenpluak):

- (15) a. Langonen zen omen bizi Hipokrataren alaba bakarra
b. Zer zaio ote gertatu?

Basyque datubaseko zenbait etsenpluk erakusten dutenez, perpausaren bukaeran agertzen diren *omen* eta *ote* hauek ez dira eten prosodiko baten laguntzarekin gauzatzen: perpaus bukaerako *omen*-en murrizte fonologikoko fenomenoak ongi

lekukotuak dira. Zernahi gisaz, aukera hau ezinezkoa da gainerako hizkeretan. Horrenbestez, eta gutxienez erdialdeko hizkeretan, 10B ez da *omen* edo *ote* parentetiko baten erakusgarri. Partikula horien leku sintaktikoa beraz adizki jokatuaren gainetik dagoela onartu beharrean gaude. *Omen*-entzat, datuak bat datoz kartografia lanek esan-entzunezko ebidentzialentzat proposatzen duten posizioarekin (Cinque, 1999: 71). *Omen* adizki nagusiaren gainetik badago egituran, *ba-*, *ez* eta galdegaia are gorago aurkituko dira.

Gauzak horrela, euskararen « aditza lehen » debekua ulertzeko modu egokiagoa da perpausaren osotasunari begiratzea, laguntzaileari begiratzea baino. Momentuz, Elordieta eta Haddicanen (2017, 2018) lanei segituz, honelako zerbait asunituko dut:

- (16) Euskarazko perpaus jokatuak badute, ebidentzialtasun proiektzio funtzionalaz gorago eta halabeharrez, buru funtzional bat, X deituko duguna, fonologikoki gauzatua egon behar duena.

3. Predikatuaren aurreratzea

Laguntzailearen kokagunearen auzia ondoko hitzorden aldizkatze ezagunarekin lotua da (Laka, 1990) :

- (17) a. Etorri da
b. Ez da etorri

Lakaren (1990) jatorrizko analisisian, (17a) oinarritzko ordena da, eta (17b) berriz, eratorria, laguntzailea Polaritate burura erakarriaz sortua:

- (18) a. $[_{PolS} \text{ ez } \emptyset [_{InfS} [_{AS} \text{ etorri}] \text{ da}]]]$ -> mugitu laguntzailea Polaritate burura
a. $[_{PolS} \text{ ez } \text{ da} + \emptyset [_{InfS} [_{AS} \text{ etorri}] (\text{da})]]]$

(18)-ko deribazioak arazo ezagunak ditu, hemen berrituko ez ditudanak (ikus Etxepare eta Uribe-Etxebarria, 2009; Elordieta eta Haddican, 2018, sintesi batentzat). Haddicanek proposatu zuen alternatibian, ezezko ordena da laguntzailearen jatorrizko lekua erakusten duena:

- (19) $[_{InfS} \text{ da } [_{AspS} [_{AS} \text{ etorri}]]]]]$

(19) ez da euskaraz ongi eraturiko perpaus bat. (16)-en emandako baldintzak galdetzen duen bezala, euskarazko perpaus jokatu minimoak badu Inflexio Sintagmatik goragoko buru funtzional bat fonologikoki gauzatu beharra. Haddicanen (2004)-ko azterbidean, X Lakaren Polaritate burua bera da. Buru honek ezeztapena erakartzen du beheagoko Polaritate Sintagma batetik, eta ezeztapenik ez dagoenean berriz, ageriko bururik ez duen Polaritate Sintagma osoa inguratzen du:

- (22) a. $[_{PolS1} \text{ Ez } Pol^0 [_{InfS} \text{ da } [_{PolS2} (\text{ez}) Pol [_{AS} \text{ etorri}]]]]]$
 $\frac{\quad}{\quad}$ (Ezeztapenaren mugida)

- b. $[_{PolS1} [_{PolS2} [_{AS} \text{ etorri}]]_i Pol^0 [_{InfS} \text{ da} \dots t_i \dots]]]$
 $\frac{\quad}{\quad}$ (Polaritate Sintagmaren mugida)

Predikatuaren aurreratzeak bestela esplikatzen zail izango liratekeen konfigurazio batzuk azaltzen ditu. Har esate baterako Martinez-ek (2015) bere tesian korpusetik ateratako ondoko etsenplua:

(23) NIK ihes dagidan ari du euria

Hainbat gauza azpimarragarri dago (23) bezalako perpaus batean. Batetik, Altuberen legea indarrean ez dagoela ematen du (*ihes* izena, *ihes+egin* aditz konplexuaren parte dena, galdegaiaren eta aditz jokatuaren artean agertzen da); bestetik *egin*, *ihes+egin* predikatu konplexuaren aditza, zuzenean Inflexio buruari lotua agertzen da, aditz sintetiko gisa. Honek *ihes* izena inkorporaturiko izen gisa analizatzeko aukera baztertzeraz eramaten gaitu (ikus Fernandez 1997 inkorporazioaren inguruan predikatu konplexuetan). Ohar gaituzen *ihes* izenak komunztadura galdatzen duela kausatibizazio prozesuan (24a), komunzki *izen+egin* predikatueta, baina ez beren ordain ezergatiboetan, gertatzen den bezala (24b-d). *Ihes* beraz izenezko argumentu sintaktiko bat da hemen, ez *egin*-ekin bat egiten duen osagai morfoloikoa:

(24) a. Ihes eginarazi dio/*du
b. Dantza eginarazi dio/*du
c. Dantzarazi du/dio

Ondorio horretatik abiatuta, analisi posible bat honako hau izan liteke:

(25) a. [_{InfS} I [_{AS} ihes egin]]-> egin aditzaren mugimendua InflSren burura
b. [_{InfS} egin+I [_{AS} ihes (egin)]]-> Polaritate burua batu
c. [_{PolS} Pol⁰ [_{InfS} egin+I [_{AS} ihes (egin)]]]-> Predikatua aurreratu
d. [_{PolS} [_{AS} ihes (egin)]_i Pol [_{InfS} egin+I ...t_i...]]-> galdegai burua batu
e. [_{GaldS} Gald [_{PolS} [_{AS} ihes (egin)]_i Pol [_{InfS} egin+I ...t_i...]]]->Galdegaia erakarri InfStik
f. [_{GaldS} NIK Gald [_{PolS} [_{AS} *ihes* (egin)]_i Pol [_{InfS} *dagit* ...t_i...]]]

Analisi honek predikatuaren aurreratzea behar du galdegaiaren eta adizki jokatuaren artean dagoen posizio batera. Predikatu hori aditzak hustutako Aditz Sintagma da. Predikatu hondar horren posizioa ez da partikula ebidentzialena, haien gainekoa baizik, (26)-ko hurrenkerak salatzen duen bezala:

(26) Irri omen dagi

4. X orojale baten kontra

(27a-b)-ren arteko diferentziak euskalki arteko diferentzia gisa aurkeztu izan dira: lehen aukera ekialdeko hizkeretan da posible; bigarrena orokorra da.

(27) a. Nor da etorri?
b. Nor etorri da?

Baina aditz sintetikoen portaerari ohartzen bagatzaizkio, afera ez da bakarrik euskalki artekoa. (27a)-ren portaera bera dute aditz sintetikoek, euskalki guzietan. Hartu Lakak (1990) (27a-b)-rentzat proposatzen duen azterbidea: Polaritate buruak, (27a) posible

den lekuetan, izaera sinkretikoa du; polaritate tasun bat kodetzeaz gain, galdegai tasun bat ere biltzeko gauza da, eta horrenbestez galdegaiak erakarri ahal ditu. X “orojale” bat da. Euskalkien arteko diferentzia honela eman ahal izango genuke horren arabera:

(28) a. Ekialdeko hizkerak

Pol [+pol, +galdegai]

b. Erdialde/mendebaldekoak

Pol [+pol]

Baina aditz sintetikoen portaera orokorra esplikatu beharraren konduan sartzen badugu, (28) bezalako zerbaitek ez du argitzen zergatik Polaritate buruaren osaera adizki jokatuak aditz erro bat edukitzearen mendean dagoen. Gogoratu « aditza lehen » debekua galdegai baten bitartez altzaraz daitekeela euskalki guzietan, ekialdekoetan zein mendebalde-erdialdekoetan, adizkia sintetikoa denean (tartean *izan/edun* kopula edo aditz nagusi gisa ari direnean) :

- (29) a. Zer duzu nahikoa zuk zorionsu izateko?
b. Zer duzu nahiago, arraina ala haragia?
c. Nor da hori?
d. Zer du Jonek?

Ausazko lotura horren nondik norakoak misteriotsu xamarrak gertatzen dira Laka (1990) iturburu duen azterbide aski hedatuan. Aurreko lan batean (Etxepare, 2016) erakutsi dut ekialdeko laguntzaileak ez direla beti galdegai baten bitartez erreskatatzen ahal. Bertan arrazoi batzuk ematen dira pentsatzeko hizkera horietan aditz lexikoa laguntzen duen adizki jokatuak izaera anbigua duela: erro lexikodun elementu bat izan daiteke, edo Komunztadura eta Denbora buruen lexikalizatzaile hutsa (hots, funtzio-buru bat, Arregi eta Nevins-en bezala, 2013). Azken kasu honetan, *Galdegai-Adizki jokatu* hurrenkerak ezinezkoak gertatzen dira. Pundu hori ondoko atalean berritzen dut laburki, garrantzitsua baita. Egitura progresiboak baliatzen ditut horretarako.

5. Progresiboa eta birregituraketa

Nafar-lapurterak birregituraketa adibide garbi bat eskeintzen du progresibozko egituren esparruan.

Ari forma oinarri duten egitura progresiboak bi perpausetakoak dira. Batetik bi izen sintagma absolutibo agertzen dituzte, eta *ari*-k inesibozko perpaus nominalizatu bat hartzen du osagarritzat:

(30) Xabier [_ liburuak erosten] ari da

Ari progresibozko aditzak aspektu burutuari eta burutugabeari dagozkien markak har ditzake:

(31) a. Xabier [_ liburuak erosten] ari-tzen da

b. Xabier [_ liburuak erosten] ari-tu da

Ari aditzak forma jokatugabeak ere baditu (32a,b), eta aditz oin gisa ager daiteke subjunktiboan (33):

- (32) a. Ez dakit horretan aritu ala ez
b. Horretan aritzea alferrikakoa da

(33) Ez dugu nahi horretan ari zaitezen

Ari-dun egiturak bi perpausetako kontrol egitura gisa analizatuak izan dira (Hualde and Ortiz de Urbina, 1987; Laka, 2006). Analisi hori ontzat joko dut hemen.

Bizkitartean, ekialdeko hizkerek konfigurazio alternatibo bat garatu dute XIX. mendetik aurrera progresibozko egituretan. Konfigurazio alternatibo horretan: (i) laguntzailea menpeko aditz lexikoaren arabeko forma du; (ii) perpausak azpiko aditzari dagokion kasu lerrokatzea erakusten du; (iii) laguntzaileak menpeko perpausako objektuarekin komunztadura egiten du numero eta pertsonan; eta (iv) kontestu horretan, *ari* aditzak ez dezake aspektu atzizkirik har. Konparatu (34a,b) (Lafitte, 1944).

- (34) a. Xabier ura karriatzen ari da
b. Xabierrek ura karriatzen ari du

(34a) perpausak ez bezala, (34b)-k laguntzaile iragankorra erakusten du, *karriatu* aditzari dagokion gisa, eta haren subjektuak ergatibo kasua du, eta ez absolutiboa, (34a)-n bezala. Konfigurazio hau ezinezkoa da aspektu atzizkiekin batera:

- (35) a. *Xabierrek ura karriatzen aritzen du
b. *Xabierrek ura karriatzen aritu du

(35) perpausaren gramatikaltasun eza nola ulertu behar dugu? (35)-ek aspektu atzizki bakarra har dezake. Murriztapen hori interpretatzeko modu natural bat da egitea perpausak aditz bakarra duela, eta beraz, *ari* progresiboak ez duela aditz izaerarik kasu honetan. Kontrol kasuetan bi perpausetako egitura dugun bitartean, (34b) perpaus bakarreko egitura da. Honelako egitura alternantziak birregituraketa fenomeno orokorraren erakusgarri dira (Rizzi, 1982; Cinque, 2006).

Perpausaren aspektu eremua hedatu egiten badugu kartografia ikerketen bidetik, progresibozko bi egiturak ondoko konfigurazioen bitartez irudika ditzakegu. (34a)-n, *ari* aditz gisa lotzen zaio egiturari, gainetik partizipiozko eta gerundiozko tasun morfosintaktikoak dituelarik (Cinque, 2004:133):

- (36) ...F_{Ohikoa}...F_{Gerundioa}...F_{Konpletiboa}...[VP *ari* [Postposizio S ...VP...]]

(34b)-n, *ari* zuzenean gerundio buruan sortua da, eta buru funtzional baten gisa portatzen da.

- (37) ...F_{Ohikoa}...*Ari* Gerundioa...F_{Konpletiboa}... [Postposizio S ...VP...]]

Ari buru funtzional bat bada (34b)-n, Aspektu Sintagmatik kanpo dagoena, eta adizki jokatu oraindik gorago badago perpaus egituran, ondorioztatu beharrean gara laguntzailea buru funtzional batean sortua dela ere bai. Arregi eta Nevins-en proposamenari helduaz, egin dezagun laguntzailea kasu horretan denbora eta komuntaduraren euskarri huts bat dela. Honek predikzio bat egiten du: begiratzen baldin badugu zein eratako elementuek gerizatzen duten adizki jokatu lehen posiziotik kasu horietan, laguntzaileari dagozkionak izan behar dute, ez aditz sintetikoek dagozkienak. Predikzio hori betetzen da, (38-39) kontrasteek erakusten dutenez: (39b)-k ez du NZ-hitza onartzen adizki jokatuaren aitzinean, mendebaldeko laguntzaileek onartzen ez duten bezala.

- (38) a. Nor ari da ura karreatzen?
b. Nor da ura karreatzen ari?

- (39) a. Nork ari du ura karreatzen?
b. *Nork du ura karreatzen ari?

Arrazoibide honen arabera, ekialdeko laguntzaileak erro lexiko baten jabe izan daitezke edo denbora eta komuntadurarentzako euskarri hutsa. Honela adieraz genezake euskalkien arteko diferentzia:

- (40) a. ...[*du* T/Agr [v [VP]]] (Euskalki guziak, ekialdekoak barne)
b. ...[T/Agr [v *erroa* [v [VP]]]] (Ekialdekoak bakarrik)
- _____/

Ekialdeko hizkerak (40a)-ren hautua egiten dutenean, ezker muturreko hitzordena erdialde-mendebaldeko hizkeretako bera da. Laguntzaileak erro lexiko bat izateko baldintza morfosintaktikoak betetzen direnean berriz, ezker muturreko hurrenkera posibleak aditz sintetikoetako berak dira. Diferentziak beraz ezin du egon Polaritate buruaren osieran.

Ari-rekin eraiki dugun argudioa bestelako egiturekin ere errepika daiteke. Funtsean, adizki jokatuak laguntzaile portaera erakusteko aski da erroaren eta denboraren/jokatutasunaren arteko ondokotasuna etetea. Hartu esate baterako identitatea adierazteko baliatzen dugun *izan* aditza:

- (41) Kattalin pertsonai irringarria da antzerkietan

(41) perpausaren predikatu nagusia *irringarria* adjektiboa da. Horrelakoetan, aipatu dugun bezala, predikazioa bideratzeko kopula baten beharra dugu, aditz kategoria duen forma jokatu bat kasu honetan (*da*). Espero bezala, (41)-ek *galdegai-adizki jokatu* hurrenkerak onartzen ditu:

- (42) a. Kattalin da pertsonai irringarria antzerkietan
b. Pertsonai irringarria da Kattalin antzerkietan

Gure analisiak predikzio bat egiten du: *izan* aditzari aspektuzko laguntzaile bat eransten badiogu, era horretako hurrenkerak ez lukete posible izan behar. Aspektuzko

laguntzaileak trabatuko baitu aditzaren eta denboraren arteko lotura morfologikoa (43), adizki sintetikoaren presentzia segurtatzen duen konfigurazioa.

(43)[T/Agr [AspS Asp [v izan [Adjs irringarria]]]]
* _____ /

Predikzioa betetzen da: (44b-d) ezinezkoak dira ekialdeko zein mendebalde eta erdialdeko hizkeretan (Maia Duguine eskertzen dut datu hauengatik):

- (44) a. Kattalin pertsonai irringarria izaiten da antzerkietan
b. *Kattalin pertsonai irringarria da izaiten antzerkietan
d. ??Kattalin da pertsonai irringarria izaiten antzerkietan

6. Jokatusun hedatua

Zein da aditz tasunaren eta perpausaren ezker ertzean posible diren hitzordenen azpiko lotura? Esplikazioaren atariko gisa, beste ikuspuntu batetik heldu nahi nioke Elordietak eta Haddicanek proposatzen duten X-ren proiektzioaren hipotesiari.

Itzal handikoak bilakatu diren lanetan, Kleinek (1994, 1998, 2000, 2006) argudiatzen du jokatusuna bi dimentsio basiko biltzen dituela bere baitan, hizkuntza askotan morfologikoki batera gauzatzen direnak, baina semantikoki bereizi beharrekoak direnak. Batetik denbora adierazpidea dugu, bestetik asertzioa. Bi dimentsio horiek bere gainki adieraz daitezke kontestu egokia bilatuz gero, baita morfologikoki nahasiak diren hizkuntzetan ere. Ingeleseko bere adibideak ekartzen ditut hona. Eman dezagun (45) bezalako perpaus bat:

(45) The book was on the table
“Liburua mahai gainean zegoen”

Adizki jokatuaren gaineko intonazio kontrastiboak bi irakurketa desberdin ematen ditu. Batak denborazko edukia azpimarratzen du. Bigarrenak, proposizioaren baiespena.

- (46) a. The book is on the table--No, the book WAS on the table
“Liburua mahai gainean dago- Ez, liburua mahai gainean ZEGOEN”
b. The book was not on the table—No, the book WAS on the table
Liburua ez zegoen mahai gainean- Ez, liburua MAHAI GAINEAN zegoen

Denbora eta asertzio edukiak loturik agertzen dira, Kleinek erakusten duen bezala. Hartu (47):

(47) A: Why didn't Mika come to the park this morning?
“Zergatik ez da Mika parkera etorri goiz honetan?”

B: She was sick
“Eri zegoen”

Denboraren ohiko ikuspegia da eventua bat enuntziario denborarekin harremanean jartzen duela. *Mika eri zegoen* bezalako zerbaitek Mikaren eritasuna iraganean kokatzen du, enuntziario denboraren aitzinetik. Baina denboraren egitekoaren irudi hori ez da osoa, Kleinek erakusten duen bezala. *Eri zegoen* aurreko galderaren erantzun gisa ematen bada, ez da hortik segitzen Mika ez dagoenik eri enuntziario denboran. Gerta liteke eri jarraitzea, baina perpaus hori mintzo den denbora bitartea galderak altxaturiko denbora tartearen mugetan ulertu behar da (parkeko elkarraldiari dagokiona). Denbora tarte horri, Asertzio Denbora deitzen dio Kleinek. Asertzio denbora baieztapenak jomugan duen denbora bitartea da. Perpausak adierazten duen proposizioaren egiazkotasuna asertzio denborak mugatzen duen bitartearen arabera ebatziko da. Baieztapenari eta denborari dagozkion bi dimentsioak loturik agertzen dira beraz, baina ez dira nahasten. Hizkuntzek egiteko horiek morfologikoki bereiz ditzakete edo ez. Ingelesak batera ematen ditu biak. Euskarari begiratzen badiogu, interesgarria da ikustea ingelesezko bigarren kontrastea, asertzioaren gainekoa, ezin dela besterik gabe adizki jokatuaren bitartez adierazi (46b). Goragoko egiturari hel egin behar zaio: dela galdegaiari, (46b)-n bezala, dela *ba-* baieztako aurrizkiari (48), azken hau beharbada ez hain modu naturalean.

(48) Ez, liburua BAZEGOEN mahai gainean

Kleinen lanak (1)-en ezina beste modu batean ulertzeko bidea ekartzen du:

(1) *Dator

(1)-en gramatikaltasun ezak aditzera emango luke euskaraz aipaturiko bi dimentsioak, denborarena eta asertzioarena, ez direla batera gauzatzen morfologikoki, eta bereiz agertu behar direla perpaus egituran. Hau da, baieztapen batek egitura sintaktiko aberatsagoa behar du euskaraz ingelesez baino. (1)-en arazoa ez da beraz aditzaren kokapena (delako "lehen posizioa"), baizik eta (1)-en sintaxi hezurdura ez dela aski baieztapen bat bideratzeko. Asertzioari dagokion dimentsioak bereiz gauzatu egon behar du euskaraz. Gutxienean, betegarri lana egiten duen *ba-* aurrizkiak markatu behar da.

(49) Badator

7. Leheneste jokoak diskurtsu eremuan

Euskara Kleinen lanen ikuspegitik begiratzeak, eta horrek nolako ondoriotara eramaten gaituen, ez gaitu biziki harrizko jakinik azken bi hamarraldietan diskurtsu eremuak ezagutu duen sintaktikotze progresiboa, 70etako hipotesi performatiboan oin hartzen duena (ikus besteak beste Etxepare, 1997; Speas eta Tenny, 2003; Miyagawa, 2012, 2021; Wiltschko, 2014, Hinzen eta Sheehan 2011). Gaur egungo ezker muturreko kartografia sintaktikoak proiektzio multzo aberatsa osatzen du. Euskarari dagokionean ondokoak osoki partekatuak direla esango nuke euskalarien artean, asertzio buruaren salbuespenarekin:

(50) [GaldegaiS Gal⁰ [AsertzioS As⁰ [EbidentzialS Ebid⁰ [JokatutasunS...]]]]

Deitu dezagun Asertzio Sintagmatik goragogoko eremu sintaktikoa Diskurtsu Eremua. (50)-en argitan, Haddican eta Elordietaren orokorpena honela berformula daiteke:

(51) Euskararen diskurtsu eremuak fonologikoki gauzatua izan behar du

Ohartzen bagara, *ba-* ezin da agertu euskarazko perifrasietan, ez bada, bazter-aukera gisa, baieztapenaren indargarri bezala (hizkera batzuetan, ikus Laka 1990):

(52) *Badu erosi

Egin dezagun *ba-* azken errektorsu gisa batzen dela perpausean: aditz predikatua ezin denean aurreratu, eta besterik ez dugunean diskurtsu eremua fonologikoki gauzatzeko, *ba-* ematen dugu. *Ba-*ren azken errektorsu izaerak naturalki esplikatzen du zergatik galerazten duen beste deusek diskurtsu eremua bete dezan hura present delarik (Oihartzabal, 1983):

(53) Nor (*ba)dator?

Itzul gaitzen orain laguntzaileen eta adizki sintetikoen arteko diferentzietara: zergatik dira *Galdegai-Adizki jokatu* hurrenkerak possible aditz sintetikoekin baina ez laguntzaileekin? Lehen arrazoia adizki jokatuaren jatorrizko lekua ezkerrean egotean dago. Eman dezagun aditz sintetiko bat (*dator*) deribazioaren ondoko puntuan (54), asertzio buruak aditz formako osagai bat galdetzen duelarik bere espezifikatzaileira erakartzeko. Posizio horrek sintagma mailako zerbait behar du.

(54) a. [_{InfS} I [_{AS} -tor-]] -> batu erroa flexioarekin
b. [_{InfS} *dator* [_{AS} *pro* (-tor-))] -> Batu As
d. [_{AsertzioS} AS⁰ [_{InfS} *dator* [_{AS} *pro* (-tor-)]]]

Inflexio Sintagma aurreratzen badugu Asertzio buruaren espezifikatzaileira, hertsadura ezagun batean erortzen gara, FOFC izenekoa (*Final-Over-Final Constraint*, Biberauer eta beste, 2014).

(55) FOFC

Beta sintagma buru-lehen bat bada eta Gamma Beta zuzenean menderatzen duen sintagma bat, Gamma buru-lehen izan behar du. Beta sintagma buru-azkena bada, eta Gamma hura zuzenean menderatzen duen sintagma bat. Gamma buru-lehen edo buru-azken izan daiteke.

FOFC hertsadurak honelako asimetriak deskribatzen ditu (Etxepare eta Haddican, 2017):

(56) a. [_{Beta} Nahi zuen [_{Gamma} bere ingelesa hobetu]]
b. [_{Beta} Nahi zuen [_{Gamma} hobetu bere ingelesa]]
d. [_{Beta} [_{Gamma} Bere ingelesa hobetu] nahi zuen]
e.*[_{Beta} [_{Gamma} Hobetu bere ingelesa] nahi zuen]

Inflexio Sintagmaren aurreratzeak (56e)-ren antzeko konfigurazio bat ekarriko luke, FOFC bortxatzen duena:

(57) [AsertzioS [Infs *dator* [AS *pro* (-tor-)]] As⁰...

Aurreratzearen aukerak beraz ez du balio diskurtsu eremua fonologikoki gauzatzeko, bestelako baldintzak bortxatzen dituelako. Baina axola duena diskurtsu eremua fonologikoki gauzatzea bada, beste alternatiba bat bada: goragoko buru bat proiektatzea, eta perpausaren ertz fonologikoa bertan kokatzea. Hori da galdegaiak ahalbidetzen duena, *Galdegai-Adizki jokatu* hurrenkerak sortuaz:

(58) [GaldS *nor* [AsertzioS As⁰ [Infs *dator* [AS *pro* (-tor-)]]]]

Zergatik ez da aukera hau beti posible? Laguntzaileak jokoan direnean, beti da posible Aditz Sintagma aurreratzea, eta hau da hobetsitako aukera, deribazioaren iragaitean lehenago datorren aukera delako:

(59) [AsertzioS [AS ...*etorri*] As⁰ [Infs *da* ([AS *pro* *etorri*)]]]]

Galdegaiaren eta aditz sintagmaren aurreratzea ez badira posible, *ba-* aurrizkia eransten da. Honelako orokorpen bat atera daiteke aditz sintetikoen eta laguntzaileen konparaziotik:

(60) Ase ezazu diskurtsu eremuaren galdakizun fonologikoa ahal bezain laster

“Ahal bezain laster“, kasu honetan, deribazionalki ulertu behar da: Asertzio burua batu bezain laster, aukera baldin bada. Fonologiari egiten zaion erreferentzian barrentzea lan honen mugetatik kanpo dago, baina baldintza fonologikoak agerikoak dira ohartzen bagara diskurtsu eremua eraikitzen laguntzen duten kategoria guzietan ez dutela balio “perpausaren ertz fonologikoa“ deitu dugun hori finkatzeko. Topikalizazioak, esate baterako, ez du laguntzen:

(61) *Liburuak, dakarzki

Gauza ezaguna da topikoek beren sintagma intonazional propioa ezartzen dutela (ikus e.g. Nespor eta Vogel 1986). Perpausaren ertza ez da beraz perpausaren hedapen maximoarekin parekatu behar (topikoak galdegaiaren gainetik agertzen dira euskaraz, eta horrenbestez pentsa liteke perpausa egitura aldetik hedatu egiten dutela galdegaiaz haratago). Ertz hori, hala nola Diskurtsu Eremuaren galdakizun fonologikoa intonazio sintagma baten barnean ulertu behar da.

Erreferentzia hautatuak

Arregi, Karlos and Andrew Nevins (2013) *Morphotactics. Basque Auxiliaries and the Structure of Spell Out*. Springer.

Baker, M. (2003) *Lexical Categories*. Cambridge University Press.

A paraître Urtzi Etxebarria, Amaia Elizalde et Argia Olçomendy (eds) (2023) *Mélanges offertes à Jean Casenave Lapurdum XXIV*

Biberauer, T., A. Holmberg and I. Roberts (2014) "A syntactic universal and its consequences" *Linguistic Inquiry* 45: 169-225.

Cinque, Guglielmo (2006) *Restructuring and Functional Heads. The Cartography of Syntactic Structures*, Volume 4. Oxford: Oxford University Press.

Duguine, M. and A. Irurtzun (2008) "Ohar batzuk nafar-lapurterazko galdera eta galdegai indartuez" In X. Artiagoitia and J.A. Lakarra (eds) *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren Omenez*. Bilbao:University of the Basque Country. 195-208.

Elordieta, A. and B. Haddican (2018) "Truncation feeds intervention. Two clause type effects in Basque" *Natural Language and Linguistic Theory* 36: 403-443.

Elordieta, G. (1997) "Feature Licensing, Morphological Words, and Phonological Domains in Basque" In A. Mendikoetxea and M. Uribe-Etxebarria (eds) *Theoretical Issues at the Syntax-Semantics Interface*. Supplements of the *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, "Julio de Urquijo", *International Journal of Basque Linguistics and Philology*, 40. Bilbao and Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea and Gipuzkoako Foru Aldundia. 171-202.

Etxepare, Ricardo eta Myriam Uribe-Etxebarria (2009) Hitz hurrenkera eta birregituraketa euskaraz. In *Festschrift for Beñat Oyharçabal*, ed. by R. Etxepare, R. Gómez and J. A. Lakarra, *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 43: 335-356.

Etxepare, R. eta L. Uria (2016) "The hearsay evidential across Basque dialects" In Beatriz Fernandez and Jon Ortiz de Urbina (arg) *Microcomparative Studies on Basque*. Amsterdam: John Benjamins.

Etxepare, R eta B. Haddican (2017) "Repairing FOFC violations: Evidence from Basque verbal clusters" In L. Bayley and M. Sheehan (arg) *Order and Structure in Syntax I: Word Order and Syntactic Structure*. Berlin: Language Sciences Press. 135-157.

Etxepare, R (2016) "Laguntzailea aditz sintetiko gisa ekialdeko hizkeretan" *Lapurdum* 19: 257-269.

Haddican, W. (2004) "Sentence polarity and word order in Basque" *Linguistic Review* 21, 87-124.

Klein, W. (2006) "On Finiteness" In V. Geenhoven (ed) *Semantics in Acquisition*. Dordrecht: Springer. 245-272.

Laka, I. (1990) *Negation in Syntax: On the nature of functional categories and projections*. Doktore tesia, MIT.

Lizardi, Aitor (2024) Linking the sentence to discourse: a syntactic, semantic and pragmatic analysis of Basque discourse particles. Doktore tesia, UPV-EHU.

Martinez, A. (2015) *Aditza+egin aditz lokuzioak*. Doktore tesia, University of Deusto.

A paraître Urtzi Etxeberria, Amaia Elizalde et Argia Olçomendy (eds) (2023) *Mélanges offertes à Jean Casenave Lapurdum XXIV*

Miyagawa, S. (2021) *Syntax in the treetops*. Linguistic Inquiry Monographs. CA, Massachusetts:MIT Press.

Monforte, S. (2020) *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. Doktore tesia, UPV-EHU.

Oihartzabal, B. (1983) 'Ba- baiezkoa aurrizkia" *Euskera* 29: 351-371.